



## COVID19-ak Haurreskolak Partzuergoko langileengan eragindako kalteen aurrean STEILAS Sindikatuaren eskaerak

COVID19 gaitzaren osasun larrialdiak eragin duen ez-ohiko egoera honen ondorioz Haurreskolak Partzuergoko langilegoak hainbat ondorio izan ditu. Hauen artean nabarmenena, hezitzaile ordezkokoak lan gabe gelditu izana da (enpresak ez dituelako ordezkapenak gauzatuko).

Salbuespeneko egoera honen aurrean **STEILAS** sindikatuak argi du hezitzaile ordezkoko hauek babes osoa behar duzuela enpresaren aldetik. Beraz, hauek dira Haurreskolak Partzuergoari dagoeneko eskatu dizkiogun neurriak:

- Haurreskolak Partzuergoko akordioan jaso zen bezala, ordezkapenak lehen egunetik betetzen jarraitzea Lan Hitzarmenak eta Ordezkoen Araudiak jasotzen dituzten irizpideen arabera egoerak irauten duen bitartean ere.
- Zonalde bakoitzean ordezkapenak emateari utzi zitzaionean kontratua zuten langile guztiei salbuespeneko egoerak irauten duen bitarteko puntuazioa aitortzea hurrengo baremazio aldi (salbuespeneko egoeran gauden bitartean kontratuak amaitu arren).
- Aparteko puntuazioa zein ordainsaria (dagokiena) jaso ahal izateko ikasturtean beharrezkoak diren 165 lan egunak salbuespeneko egoerak irauten duen bitartean proportzioan egokitzea.

Neurri hauek hartzeak Haurreskolak Partzuergoko hezitzaile ordezkoen egoera babestea suposatuko luke, zuen egoera prekarioa areagotu ez dadin, ezinbesteko langileak baitzarete.

**STEILAS sindikatua langile guztien eskubideak defendatzen tinko izango duzue!**

2020ko martxoaren 18an.



[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)

Araba ☎ 945 14 11 04  
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98  
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00  
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55  
nafarroa@steilas.eus